

Jainkoarekin hurbiltasun berezia dutenak edo jainkozkoan esku-hartze berezia dutenak irudikatu ohi dituzte zenbait erlijiotan: e.b., \*bodhizattwak, budismoan; \*jeinuak Txinako daoismoan; \*santuak katolizismoan.

Konfuzianismoak berez ez zuen irudirik onartzen; baina budismoaren eraginez, konfuzianismoak ere onartu zituen neurri batez \*idoloak, bai bere tenpluetan eta bereziki etxeko gurtzarako. Ik. Etxe(ko) gurtza.

Xintoismoak ere budismoaren eraginez onartu zituen jainkoen irudiak. Hinduismo vedikoak ez zuen \*tenplurik eta jainkoen irudirik; Upanisad-en ondorengoak dira horiek; dena dela, hinduismoaren interpretazio ortodoxoak \*idolatria uxatu nahi du, irudien beraien gurtza ukatuz, eta horiek jainkozko-ra iristeko bitartekotzat hartuz.

Judaismoak eta islamismoak ez dute Jainkoaren irudirik onartzen. Horien ordez, sinbologia aberastu dute. Izatez, arabiar arteak ez du giza irudirik erabiltzen, nahiz eta \*Koranean bertan horretarako debeku zuzenkorik ez egon. Gaur islamismoak debekaturik dauka gurtza-tokietan giza irudiak egitea; hala ere Herri musulman ez-arabiarretan ez dute inoiz hertsiki bete debeku hori.

Kristautasunak, Jesukristoren irudiez gain, Ama Birjinarenak eta beste santuenak eta \*aingeruenak ere onartu zituen, lehen mendeetatik hasita; eta erasoaldiak bukatzean gero eta garrantzi handiagoa hartu zuten kristautasuneko gurtzan.

Hala ere, historian zehar izan da, bai, irudien kontrako joerarik ere, \*idolatri arriskuaren kontrako borrokaren itxuraz. Eliza greziarrean, e.b., eztabaida luzea eta gogorra gertatu zen \*ikonoklastena VIII. eta IX. mendeetan; eta gerora oso mugatua eta zorrotz arautua gelditu da \*ikonoen erabilera.

Mendebaldean, berriz, Erdi Aroan oso hedatu eta handitu zen irudien \*jaiera. Baina irudiak ez ziren debozio-bide bakarrik, eta bai katekesi-metodoa ere. Teologiak berak onartua eta zurikatua zeukan irudien erabilera, horiei eskaintzen zaien gurtza zuzenean irudikatuei edo erodei ematen zaielako, eta ez irudietan gelditzen.

Azken Erdi Aroan gertaturiko abusuen kontra, erreazio bizia kontrajarri zuten XVI. mendeko erreformatzaileek, edozein irudi erlijiozkori uko egiteraino. Lutertarrek \*santokristoa bakarrik kontserbatu zuten, ez besterik.

Ik. Gurtza(pena); Jainkoaren irudia; Sinbologia.

Paulo Agirrebaltzategi

## Irudia, Jainkoaren

Ik. Jainkoaren irudia.

## Iruinarria

Sin.: Menhirra

Zutarria da, lurrean sarturik dagoena, eta sarritan \*harrespilarekin batera doana. Erlijiozko \*sinboloa izateaz gain, seguruenik gurtzazko funtzioa ere izaten zuen.

Bretainian aurkitzen dira horrelako asko. Euskal Herrian ere hainbat aurkitu dira: Mugarriaundikoa eta Mugarriluzekoa, Elgea-Artza mendi-katean; Atakoa, Aralarren; Ollantzukoa, Urbian; Etenetakoa, Urnietan (Adarra mendian).

Ik. Harria; Faloaren gurtza.

## Isilpeko eliza

Horrela izendatu izan dituzte batzutan lurralde komunistetakoak, adierazpen-askatasunik ez zutelako edota oso murriztua zutelako. "Gerra hotzaren" garaian erabili zen batez ere esakune hori kutsu polemikoz, Errromako Aulki Santuaren eta erregimen komunisten arteko harremanak etenda zeudenean edo oso tirabirakoak zirenean.

Ik. Erlijiozko jazarpena.

## Islama

Ik. Islamismoa.


## Islamismoa

Sin.: Mahometismoa; Islama

Horren jarraikariari, berriz, musulmana edo islamiarra (islamdarra) deritza.

Etimologiari dagokionez, islam hitzak, berak adierazten duen erlijioaren ezaugarriarik nabarmena esaten du: hots, Jainkoarekiko menekotasun erabatekoa. Jainkoaren esanekoa da musulmana. Fede soila eta eskolagabeek ere berengana dezaketena irakasten du Islamak; hala ere, ez ditu ukatzen \*teologo profesionalen buru-zorroztasunak.

Honako hauek dira musulman-sinesmenaren puntuak: 1) Jainkoa (Allah) badela izan, eta bakarra dela sinestea. 2) \*Aingeruak, \*deabruak eta erdiaingeru erdigizaki diren jeinu-modukoak badirela sinestea. 3) Jainkoaren mezulariengan sinestea; horietakoa omen da Mariaren seme Jesus ere; nagusia eta azkena, berriz, Mahomet omen da. 4) Profetei errebelaturiko liburuak sinestea. Moiseren legea ere errebelatutzat ezagutzen dute musulmanek, baita Dabid-en salmoak eta Jesusen \*Ebanjelioa ere; hala ere, \*Korana bakarrik gorde omen da errebelatu legez. 5) Jainkozko erabakiak sinestea, ez bait da ezer jazotzen



Islamismoa munduan

Jainkoaren nahimenak huraxe nahita ez bada, ona nahiz txarra izan gertakaria. Determinismo-kutsua du irakatsi horrek, baina, Jainkoaren handitasuna eta ahala nabarmentzen ditu. Ik. Determinismoa. 6) Azken eguna, judizio-eguna, sinestea, bertan bizi-rik irtengo bait dira hilak beren hobieta-tik, Jainkoak juzga ditzan, eta beraien egi-teen arabera, \*zerura ala \*ifernura igorri ditzan. Ik. Hilan judizioa.

Hauek dira musulmanen eginbide kontz-koenak: 1) \*Fedea aitortzea, honako hau esanez: "Ez da Jainko bat besterik, eta Mahomet da haren mezularia". 2) Eguneru bost aldiz egin beharreko \*otoitza. 3) Behartsua-ri laguntzeko eta premia arrunteei erantzute-ko legezko \*limosna, erlijiozko zergatzat har daitekeena. 4) \*Erramadan-go \*baraua, egunaren argiztetik gauera arte \*fededuna jan eta edan gabe egotera behartzen duena; gauz jan eta edan daiteke. 5) Mekka-ra

\*erromesaldia edo beila, ahaleginean bizi- tzan behin egitekoa.

Zenbaitek seigarren eginbide hau erans- ten du: gerra santuarena; baina \*elkartea-rena da betebehar hori, ez norbanakoarena. Badira, gainera, guztiei dagozkien bi egin- bide: hots, aginduak (otoitzarena, baraua-rena, etab.) betetzeko asmoa agertzea; eta tabuzko lohikeriaz lohitu ondoren legezko garbitasuna lortzeko urezko edo hondarrezko \*garbikuntzak egitea. Ik. Gerra santua; Ji- had.

Mahomet ez zen profeta eta erlijiozko gidari hutsa izan; izan zen buruzagi militar eta estatu-burua ere. Berak irakasten due- nez, musulman-estatu bikainaren forma \*teo- krazia da, zeinetan Jainkoa bera bait da subiranoa (\*kalifak ordezkatu duena) eta erlijioa bait da \*legea. Honako hauek dira zuzenbide islamiarraren iturriak: 1) Korana.

Baina Koraneko aginduek kasu jakinen bat aurrikusten ez badute, juristek ondoko beste iturrietakoren batera jotzen dute. 2) Mahometen esanak eta eginak eta haren begirapean zabalduko usarioak, \*hadith direlakoek ondorengoenganatu dituzten arabera. 3) Analogi bidezko ondorioztapenak, lehendik ebatzita arazoak aztertzetik, antzekoen irtenbidea ateratzeko. 4) Fede-elkartearen adostasuna edo bat-etortzea.

Lege estatal soila sarritan gertatu da auzitan beste "lege kanoniko" hori dela eta.

Arraza eta klase sozial guztien nazioarteko \*elkartea eratu uste du islamismoak. Islamaren barruan sorturiko \*sektek iturburu politikoa izan zuten erlijiozkoa baino arago. Horien arteko aldeak funtsean \*kalifatza legitimizatzeko baldintzetan datzate.

Profetaren familiaganako maitasun handia da \*xiiten (% 9) ezaugarria. Horien ustez, haren ondorengoak bakarrik izan daitezke kalifa. Gehienak \*sunitak dira (% 90). Horien ustez, asko da kalifa izateko, Mahomet jaiotako mekatar tribukoa izatea.

Musulman orok aitortzen du Mahomet, Jainkoak bidalitako \*profetetan nagusien eta azkentsat. Denek ohoratzen dute, Jainkoagandik harturiko misioa betetzen txit zintzoa eta bertute guztietan bikaina izan zelako. Bizi-biziro mintzen dute edozein musulman, kristau ezjakinek Mahometganako agertu izan dituzten ulergogortasunak eta gutxiespenak.

Hainbat dira islamaren eta \*kristautasunaren arteko elkarguneak; badira, ordea, ezberdintasun funtsezkoak ere, bi erlijioen arteko elkarriketa zailtzen dutenak: e.b., Kristoren jainkotasuna, horren gurutzeko heriotza.

Ik. Sunismoa; Xiismoa; Harri beltza; Imana; Erlijioa eta erlijioak.

José Pérez Remón  
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

**Ismailiarrak**

Xiiten artetik irteariko musulman-sektako baten jarraikariak. Zazpi \*Iman aitortzen dituzte; zazpigarrena, Ismail, hain zuzen ere. Hil gabe, ezkutaturik omen dago hori, mesia (\*Mahdi) bezala berriro etorri arte.

Era alegorikoz ulertzen dute \*Koran-a; hau da, ageriko esanahiaren ostean beste bat bilatu. Gnostizismo-kutsua ere badu horien pentsamenduak. Ik. Gnostizismoa.

Indian eta Afrika ekialdeko kostaldean daude bereziki zabalduak. Aga Khan dute beren buruzagi izpirituala.

Ik. Islamismoa.

**Israel**

1. Jatorriz Jakob \*patriarkaren izengoitia. Beragandik sorturiko hebraitarren Herriari eman zioten gero izan hori. Horien oraingo estatu berriak izen bera hartu du.

2. Iparraldeko hamar tribuak, Salomonen heriotz ondoren, beste bietatik banatu zirenean, Israel erreinuaren izena hartu zuten, Samaria hiriburua zuena; hegoaldeko erreinuari Juda eta horren lurraldeari Judea izena eman zien.

3. Israel, teologiazko kontzeptua denez, Jainkoak aukeratutako Herria da. Eliza deitzen dute, horregatik, Israel berria.

Ik. Judaismoa; Sionismoa; Eliza; Jainko-herria.

**Isur-oparia**

Ik. Libazioa.

**Isurpena**

1. Kristau-sakramentologian bataiatzeko moduetako bat da, ura bataiagaiaren burutik behera isuriz egiten dena. Mendebaldeko Elizan bataiakera horixe erabiltzen da gaur, Erdi Arotik hasi eta gero. Lehenago bataiatzekoa uretaratuz edo urperatuz egiten zen bataioa. Isurpeneko edo isurtzeko bataioa deritza gaurko katolikoan arteko bataio arruntari.

2. Erlijiozko opari-mota ere bada isurpena, latinetiko \*libazioa adierazten duena.

**Isurpeneko bataioa**

Isurizko bataioa ere esaten da. Burutik behera ura isuriz egiten den bataio-modua da. Erdi Arotik honantz era horixe erabili du Eliza Katolikoak.

Ik. Isurpena; Uretaratzeko bataioa; Ihiztadura(zko) bataioa.

**Itsasneskak**

Ik. Zerenak.

**Itsasoa**

Itsasoak bere handitasunean eta ikaragarritasunean bi esanahi kontrako ditu: a) batetik, bizitza orenen jatorria da eta \*biziak dituen ahalbide guztien gordelekua; b) bestetik, beraren indar eta mugimendu ikaragarria dela tarteko, ondamenaren \*sinboloa da.

Itsasoa amatzat hartzen dute hainbat kulturatan --hala euskal mitologian ere--; horren altzora jaisten omen da iluntzero